



BARREN

TOKIKOM



EUSKO LEGEBILTZARR
PARLAMENTO



Politika bokazio, Udaletik Legebiltzarrera

sukia

Zure etxean zaude

**BOE-ko
etxebizitza,**
garaje eta trastelekuen
hurrengo eraikuntza

943 31 65 86

www.sukia.com



ONWA CV340Z
IZOZKAILU BERTIKALA

170x60x60
A+
225 L



359€



389€

**SACP-12F AIRE GIROTU
ERAMANGARRIA**

A++
3250 frigoría
Temperizadorea
Gauetan jarrita mantetzeko funtzioa

ONWA 65"
LED TVC 65UHD

4K
Smart TV
Bluetooth

699€



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

LAN-POLTSA: BARREN ASTEKARIA

Ordezkapenak egiteko lan-poltsa osatzen ari gara:
KAZETARIAK, KOMERTZIALAK ETA MAKETATZAILEAK

Interesatuak curriculum vitae-a helbide honetara bidal dezakezue:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR
943 744 112



Azaleko itxura aldaketak

BARREnek sarri aldatu du itxura 25 urteotan: zuri-beltzetik kolorera, letra tipoan aldaketak, logotipo berriak... Baina ez da aldizkariaren beraren itxura aldatu den bakarria. Izan ere, **BARREnek** herritarrei ere eskaini zien beren itxura aldatzeko aukera, eta hala egin zuten hainbatek *Gaztia Naiz* barren atalean.

Jendeak ez daukan hori nahi izaten du askotan, eta besteak beste, itxurari eragiten dio nahi horrek. Ite kizkurra duenak ile lisoa nahi izaten du; ile horidunak, beltza; eta beltzaranak, metxa argiak; motza duenak luzatzen utzi nahi izaten du, eta luzea duenak ile moztu berriarekin egiten du amets sarri. Bada hori izan zen **BARREnek**, herriko hainbat ile-apaindegirekin elkarlanean, gazteei eskaini zien aukera.

Orrazkera doan aldatzeko zortea izan zuten gazteek. Urtebetez ilea hazten utzi ondoren, moztera ausartu zen gure lehenengo protagonista, eta bere aurpegiera eta izaera kontuan hartuta, look berritzailea egin zioten. Izan zen apaintzailearengana ile mozketa arraroren bat egiteko beldurrez joan zela aitortu zuenik ere, baina azkenean, denak agertu ziren gustura ile apaindegian eginiko orrazkera moderno eta praktikoekin. Halako ausardia puntu bat eskatzen duten erronketan gertatu ohi denez, izan zen, nola ez, apustu baten harira parte hartu zuenik ere. Eta bai, zergatik uka. Irudia lehenesten den/zen garaian, behar zuten ausardia puntuxu hori ere atal honetan parte hartzeko prestutasuna agertzen zutenek. Baina, jakina, protagonistetako batzuek baldintza txiki batzuk ere jarri zituzten, ile apaintzaileak librea uztea zer den ondo jakinda. Hala ere, behin profesionalen eskutan jarrita, denek ziruditen gustura. Gazteetako batek, esaterako, kokot aldean lar ez mozteko baldintza jarri zuen, guraizeak gehiegi ez erabiltzeko alegia, baina guraizeak ez ezik makinatxoa ere pasatu zion ile apaintzaileak eta ertzetan marrakitxo batzuk ere egin zizkion. Ama ile apaintzailea duen mutil gazte batek ere parte hartu zuen atal honetan. Ordura arte etxean bertan moztu izan zion beti ilea amak, baina orduko hartan erabat orrazkera apurtzailearekin irten zen ile apaindegitik, gandor eta guzti.

Irakurleen artean sekulako arrakasta izan zuen atal honek, baina iritsi zizaion azkena ere, gero eta zailagoa ziztaigulako ilea mozteko prest zeuden boluntarioak topatzea. Baina zer esango dizuegu ba! Atal honetan ikusi genituen besteko aldaketak eta handiagoak ere topa ditzakegu **BARREn**en hemerrotekan bila hasiz gero. Denok aldatu gara asko, eta horretarako ez dago ale zaharrei errebasoa ematea modukorik. 25. urtemugaren harira plazan egin genuen ekitaldirako jendea lokalizatzen hasi ginenean ere, kosta ziztaigun batzuk identifikatzea.

The image shows four magazine covers from the 'GAZTIA NAIZ' section, each featuring a 'Look aldaketa' (hair change) article. The covers are arranged in a 2x2 grid. Each cover includes a main photo of the person, a title 'Look aldaketa', a name, and a 'Idama ileapaindegian' (hair salon) section with three smaller photos showing the hair being styled. The names and titles are:

- Top-left: Kullali Moreno, Look aldaketa, Idama ileapaindegian.
- Top-right: Aiora Azagirre, Look aldaketa, Idama ileapaindegian.
- Bottom-left: Nerea Alberdi, Look aldaketa, Agurtzane ileapaindegian.
- Bottom-right: Fadak, Look aldaketa, Fadak ileapaindegian.

 The magazine title 'GAZTIA NAIZ' is prominently displayed at the top of each cover.



ANA ALBERDI

Kazetaria

Esperoon

pero ez dituzunak izaten baitira azalean tatuatuta geratzen direnak. Espero ez dituzun lekuak, zapoak, pertsonak.

Espero ez ditugun horiek gertatu daitezten, ordea, askatasun tar-teak ere utzi behar dizkiegu gure bidaiei. Eta hor dago kokka; izan ere, ba al dakigu planik egin gabe, alegia, gure hurrengo helmugaz ezer espero gabe, mapetan "ezinbestekoak" diren horiek markatu gabe, momentuan momentukoa bizitzen?

"Ba al dakigu planik egin gabe, ezer espero gabe, momentuan momentukoa bizitzen?"

Presaka bizi den eta kanonetara mugatzen den mundu honek lagatzen al digu tarterik inprobisaziorako?

Are gehiago, ba al dakigu beste per-

tsionen esperientzietan oinarritzen ez diren esperientzia berriak bizitzen?

Hegazkinaren ia azkeneko lerroan nago eserita, eta hausnarketa hau egiten ari naizela zera galdetu diot neure buruari: ea ba ote dagoen hegaldi honetan bidaia honetaz espero duenaren inguruan pentsatu ez duenik. Ba ote dagoen besterik gabe eta aurretik beste inori galdetu gabe, mapan galdu eta inoren aholkuak jarraituko ez dituenik. Alegia, errealia eta autentikoa den esperientzia propioa biziko duenik.

Erosotasun kontua izango da agian, edo ezezagunari diogun beldurra, edo biak batera, seguraski. Baina gure eremutik aterata ere segurua den eta bizita dagoen ezjakintasunean "galtzen" gara, esperientzia bakarrak bizitzen ari garela sinetsita.

Uda honetan, beraz, eta nirea orain bertan hasten da, lurra hartzen hasita bai-kaude, badut erronka berri bat aurretik:

Ez dut ezer espero.

Hegazkin baten barrura sartu berri naiz. Koaderno atera dut idazten hasteko, pozik, gure hurrengo helmugara noiz iritsi zain. Luze joango da ordea, oraingo honetan itsaso zabala zeharkatu eta kontinentez aldatuko baikara.

Nire lehen aldia.

Eta hegan goazen bitartean, bidaia honetan espero dudana pentsatzen hasita, espero ez ditudan eta sorpresaz harapatuko nauten esperientzia horietaz gogoratu naiz.

Espero dituzunak baino gehiago es-



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkaldun Lehenengoaren Espangurua

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UROLA
KULTURARENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARD
2011

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Viento Sur tabernak irabazi du Pintxo Lehiaketa, eta herritarren pintxo gustukoena Asgikoa izan da



Elgoibarko X. Pintxo Lehiaketako irabazleak jakitera eman zituen Udalak eguaztenean. Epaimahaiaren sari nagusia Viento Sur tabernako *Haize beltza* izeneko pintxoak irabazi du aurten. Viento Surrek 2016ko lehiaketa ere irabazi zuen. Bigarren saria San Roke tabernako *Ortuko poztasuna* izeneko pintxoari eman diote. Herritarren saria, bestalde, Urazandi auzoan dagoen Asgi tabernako *Kono Txiki kurruskaria* pintxoak eskuratu du. Iaz moduan, 26 tabernak parte hartu dute aurtengo lehiaketan. Herritarren parte-hartzea "nabarmena" izan dela adierazi dute antolatzaileek, eta guztira, 6.301 boto-txartel zenbatu dituztela (iaz 6.189 boto-txartel zenbatu zituzten). Botoak eman dituzten herritarren artean bi sari zozketatu ditu Udalak. Batetik, Daniel Alonsok irabazi du bi lagunentzako dastatze menua Belaustegi jatetxean. Eta, bestetik, Txankakuako dendetan gastatzeko 150 euroko erosketa bonoa irabazi du Catak (izen hori jarri zuen papertxoan).

Urruzuno baserriko hegaztien erakusketa egon zen ekaineko ferian

Ekaineko nekazaritza eta abeltzaintza feria egin zuten aurreko zapatuan, bero sargoriarekin. Elgoibarko baserriarrek ekoiztutako produktuak erosi eta dastatzeko aukera izan zen, betiko legez, eta baita Urruzuno baserrikoek ekarritako



era askotariko hegaztiak ikusi eta ezagutzekoa ere. Besteak beste, ahate mutua, indioliar beltza, antzarrak, gineako oiloak, euskal oiloak eta ahateak ekarri zituzten Urruzunotik. Bestalde, Kalamua guraso elkarteak kudeatu zuen txosnan Mausitxako gazta bat zozketatu zuten, eta 2.287 zenbakia izan zen saritua (ordezkoa: 0655).

Presoak hurbiltzeko mozioa onartu zuen Udalbatzarrak

Elgoibarko Udalbatzarrak bi mozio onartu zituen ekainaren 28an eginiko osoko bilkuran. Batetik, Sarek proposatu eta EHBilduk aurkeztutako presoak Euskal Herriko espetxeetara hurbiltzeari buruzko mozioa onartu zuten, EAJ, EHBildu eta PSE-EE alderdien baiezko notoeekin. Altsasuko gertakarien inguruan EHBildu Elgoibarrek aurkeztutako beste mozio bat ere onartu zuen udalbatzarrak, EAJ eta EHBilduren baiezkoarekin eta PSE-EEren abstentzioarekin. Besteak beste, Altsasuko gazteei ezarritako espetxe zigorrak "neurrigabeak" direla jasotzen du mozioak, eta baita Nafarroako auzitegian epaitu behar zituztela ere, Espainiako Auzitegi Nazionalen beharrez. Mozioez gainera, Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunari begirako adierazpen instituzionala aurkeztu zuen Udalak, LGBTI Nazioarteko Harrotasun Egunean bertan.

Gure Balioak Sarirako hautagaiak aurkezteko epea

Gure Balioak Saria abiatu du Debegesa Garapen Agentziak, bederatzigarrenegoz. Debabarreneko eskualdean giza balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo entitateen jarduna publikoki aitortzea du xede; indartu eta sustatu nahi dituen oinarizko balioak integritatea, errespetua, ekintzaitzeta eta elkarlana dira. Sariduna hautatzeko proposamenak bidaltzeko epea uztailaren 15ean amaituko da. Debabarreneko herritar orok izango du aukera nahi duen hautagaia proposatzeko, baita erakundeek, enpresek eta gizataldeek ere. Informazio gehiago nahi duenak 943 820 110 telefono zenbakira deitu edo balioak@debegesa.eus helbidera idatzi dezake. Oinarriak eta hautagaiak aurkezteko formularioa www.debegesa.eus web orrian aurkituko dituzue.

Debarrena elkarlanean prestatzen ari da Euskaraldia



Arg.: Soarte Argazkiak

Debabarreneko 80 lagun batu ziren ekainaren 27an Debako Zubi Zaharrean, Euskaraldia ariketa soziala bailara osoan egingo dutela azaltzeko. Izan ere, Debarreneko herri guztietan Euskaraldia prestatzeko lanetan dihardute herritarrek eta erakundeek elkarrekin, datorren azaroaren 23rako dena ondo antolatuta izateko. Mallabia, Ermua, Eibar, Sorluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku herriek dagoeneko eman dute izena Euskaraldian parte hartzeko, Euskal Herriko 350 herri, auzo eta hiritan batera egingo den ariketa soziala gauzatzeko. Deba bailara oso-osoak parte hartuko du: Leintz-Gatzagan hasi eta Mutrikuraino.

Hamarretik zortzik badakite euskaraz

Zortzi herrietako datuak bateratuta, Debarrenean, ezagutzari dagokionez, %58,6 dira euskaldunak, %20,8 ia-euskaldunak eta %20,5 erdaldunak. Orduan, 10etik 8k euskaraz ulertzen dute eta 10etik 6k euskaraz aritzeko gaitasuna daukate. Euskaraldia ariketa praktikoa izango da, erabilera erdigunean jarriko duena, eta inguru eta herritarrak prestatuta, hamaika egunetan euskaren erabilera handitzea eta esparru berrietara zabaltzea izango

du helburu, erabilera datuak ezagutzarenera gerturatzea.

Errealitate desberdinak, ariketa bakarra:

Ez neurritz, ez izaeraz, ez soziolinguistikoki... ez dute antz handirik, ezberdinak dira bailarako herriak, baina praktika bera erabiliko dute eguneroko hizkuntza ohiturei astindua eman eta euskararen erabilerrari bultzada emateko: ahobiziak eta belarriprestak aktibatuz, prestatu eta hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, aproba eginda. Hala, ahobiziek euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute (lanean, etxean, lagun artean...), baita ezezagunekin ere, lehen hitza gutxienez; belarriprestak, berriaz, dakiten guztiei euskaraz egiteko gonbitea egingo diete, berriekin euskaraz egiteko eskatuko diete, nahiz eta belarriprestak euskaraz edota erdaraz erantzun. Herritar bakoitzak (16 urte beteta izatea eta euskara ulertzea dira bete beharreko bi baldintzak) erabakiko du nola parte hartu nahi duen ekimenean eta zein txapa jantziko duen; aldi berean, ekimena kolektiboa izango da eta Debarrenean euskaraz bizitzeko aukera handia dagoela bistarazi eta sentitzeko aukera eskaini nahi dute Euskaraldia ekimenaren bitartez.

Mendaron ere hasi dira Udalekuak

Elgoibarren joan zen astean hasi ziren Udalekuak, eta astelehen honetan hasi dituzte Mendaron. 56 neska-mutilek eman dute izena, eta sei hezitzailek jardungo dute eurekin lanean. Uztailaren 20ra bitartean irteera, jolas eta bestelako jardueren bidez aisialdiaz gozatzeko aukera izango dute, modu aktibo, parte-hartzaile, gizarteratzaile eta osasungarrian, antolatzaileen esanetan. Mendaroko Udalak antolatu eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak kudeatzen ditu udalekuak.





“Politikan parte hartuz herri baten historia egiten da”

► MAIALEN GURRUTXAGA URANGA EAJko LEGEBILTZARKIDEA

Eusko Legebiltzarrean kiderik gazteena da EAJko legebiltzarkide Maialen Gurrutxaga Uranga (Elgoibar, 1992). Kimikaria da, eta plastikozko pieza mekanizatuen enpresa baldin badu ere, gaur egun politikari eskaintzen dio denbora, bokazioz. Elgoibarko Udalean zinegotzi eta Eusko Legebiltzarrean ordezkari izanik, hartzen dituen erabakiek eta egiten dituzten lanek herritarren bizitzan eragina dutela ikusteak asko betetzen du. Eusko Legebiltzarra barrutik ezagutu duenez, hango berri eman eta politikan berak bizi duenari buruz hitz egin digu.

- IRATI AGIRREAZALDEGI-

♦ Zerk bultzatu zintuen politikara?

19 urterekin sartu nintzen alderdian. Militante izan nahi nuen, uste nuelako politikan bazegoela tokia gizarteko aldaketan eragiteko. Familiatik etorri zaidan adarra EAJ izan da hasieratik eta horra leratu nintzen, pentsamolde eta hitzetatik ekintzetara pasatuz.

♦ Zure adinekoen artean ez da oso ohi-

koa politikarako bidea hartzea, ezta?

Ez. Oro har adin horrekin ez da jendea politikan pentsatzen egoten, horretarako gustu berezia behar da. Beste batzuek beste zaletasun batzuk dituzten bezala, niri beti gustatu izan zait politika. Nire ustez, politikan parte hartuz, herri baten historia egiten da. Gazteok, gaur egun, erronka handiak ditugu eta horiei

modu aktiboan erantzun diezaikegu politikaren bidez. Aktibo garrantzitsua gara; beti entzun da etorkizuna garela. Baina, orainean ere asko dugu esateko eta emateko.

♦ Afiliatu izatek zinegotzi izatera pasatu zinen. Nolatan eman zenuen pauso hori?

Udal hauteskundeak 2015ean izan

“Legebiltzarra hitzaren, elkarrizketaren eta adostasunaren etxea da”

ziren. Baina ordurako argia zen nire joera politikoa. Salto handia izan zen Udalean sartzea eta pasatu nintzen bizimodu intimo bat izatek beste eskala batean egotera. Politikan, norbera den bezalakoa ikusi behar du jendeak eta herrian beti ohiko jarrera azaltzen dut. Jendeak aprobetxatzen du kalean eskaerak egiteko edo kexak azaltzeko, baina horretarako ere bagaude. Nik asko estimatzen dut herriko gertutasuna. Denok izaten ditugu egun txarrak noizean behin, baina herritarren zerbitzura egon behar dugu. Hala ere, noizean behin eskertzen dut lagunekin lasai egotea.

♦ **Eta Udaletik Legebiltzarrerakoa?**

Zinegotzi lanetan ari nintzen, aldaketarako asmo handirik gabe, eta nire enpresarekin hasi berria nintzenez, nahikoa nuen horrekin. Baina EAjk zerrendetarako izenak proposatzen ditu, eta prest ote nengoen galdetu zidatenean, baietza eman nien. Politika asko gustatzen zait eta momentu ona zela iruditu zitzaidan, gaztea naizelako eta asko daukadalako ikasteko. Alderdiak zerrenda proposatu eta alderdikideek bozkatzean aurreko postuetara gerturatu nintzen, eta handik, Eusko Legebiltzarrera.

Pauso handia izan da, nire bizitza publikoan oso garrantzitsua, eta ez naiz damutu, Udal begirada izatek nazio ikuspegia izatera pasatu naizelako. Legebiltzarrean gaiak nazio mailakoak dira, eta horrek badu bere balioa. Euskadi nola eraiki planteatzen dugu; eta garapen horretan, errealitatea zein den ahaztu gabe, erabakiak hartzen ditugu. Nazio mailako aldaketetan parte hartzen da, eragina daukagu Eusko Jaurlaritzak egiten dituen gauzetan eta ideia horiek landu behar dira.

♦ **Zein dira zure eginbeharrak Legebiltzarrean? Gai zehatzik lantzen duzu?**

Legebiltzarreko pleneoz gain, batzordeak ditugu eta horietako hirutan parte hartzen dut: Enplegua, Gizarte Politikak eta Gazteria batzordean; Kultura, Euskara eta Kirol batzordean; eta, Osasun batzordean. Normalean, batzorde bakoitzean arlo zehatzak jorratzen ditugu legebiltzar-

kideok. Nire kasuan, adibidez, gazteria - Legebiltzarkide gazteena ni naiz-, euskara eta kirolari buruzkoak. Orain aldatu berri den dopinaren legea aldatzeko proiektua, esate baterako, nik neuk landu dut; eta osasun arloan ere, Osakidetzaren euskalduntzeari dagokien gaiak eraman izan ditut. Gainera, berdintasunari buruzko gaietan edo haurren babeserako gaietan ere hartu dut parte.

♦ **Udalean Euskara, Haur eta Gaztedi sailtako zinegotzi zara. Nola ikusten dira gai horiek Legebiltzarretik?**

Eskala ezberdinetatik jorratzen dira gaiak. Horrez gain, gure sistema instituzionalean eskumenak ezarrita daude erakunde bakoitzarentzat. Ondorioz, gaiak desberdinak izan ohi dira. Gazteriari dagokionez, esaterako, egungo langabeziari aurre egiteko neurriez hitz egiten dugu Legebiltzarrean; hau da, Jaurlaritzaren gazte planetaz, eta ondoren gainontzeko arloetan transbertsalki eragina duten gaietat. Udaletan, aldiz, haur eta nerabeen aisialdia, gazteleku eta ludotekaren gestioa, eta herriko gazteei zuzendutako ekintzak antolatzen ditugu. Esan dezakegu maila txikiago batetik egiten dela udaletan, herritarrengan eragin zuzena eta gertukoa izanez.

Euskarari dagokionez, antzerakoa gertatzen da. Legebiltzarrean euskararen erabilera sustatzeko plan orokorrez hitz egiten dugu, nazio mailako ikuspegi batekin. Esaterako, orain, Euskaraldia dela, administrazio orokorrean euskalduntzean zein perfil ezartzen diren... Udaletan, berriz, udal-erabilera planak garatzen ditugu, bai kanpokoa eta baita barne mailakoa ere; Gotzon Garate beka, Gurean bai... Bi sailtan, herritarrekin eta elkarrekin egiten den eguneroko elkarlana txertatuta dau-

kagu, batez ere, Elgoibarko izarrarekin.

Badira gai batzuk elkarlanean lantzen dituztenak udalek eta Legebiltzarrak; esaterako, auzolandegiena. Horrelakoetan bi aldeetatik antzera jorratzea tokatzen zait.

♦ **Legebiltzarra barrutik ezagutu duzunez, herritarroi nola azalduko zeniguker den?**

Legebiltzarra da Euskadiko organorik gorena. Euskal herritar guztion ahotsa bertan dugu, eta horrez gain, legeak egiten ditu eta Jaurlaritza kontrolatzen du. Hitzaren, elkarrizketaren eta adostasunen etxea dela esango nuke. Hortik ateratzen dira ideia ezberdineko jendeak bozkatzeko dituen alderdien arteko adostasunak. Legebiltzarrean adostasunik izan ezean, ez goaz inora.

Gaur egun, bost legebiltzar-talde gaude: Euskal Talde Popularrak, Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos, EH Bildu eta Euzko Abertzaleak. Talde bakoitzak herritarrek emandako ordezkartza dauka garberan, eta bertan herri mailako eztabaidak egiten dira: hezkuntza, osasuna, segurtasuna, ogasuna, kultura eta hizkuntza politiketako gaiak buruz, besteak beste. Jaurlaritzaren jarduna kontrolatzen dugu, eta gai desberdinen inguruan proposamenak ere egiten dizkiogu, beti ere, adostasuna lortzen badugu.

♦ **Plenoetara prestatuta joaten zarete eta denbora zehatza izaten duzue hizketarako. Beraz, hangoa, ikuskizuna da?**

Ez da ikuskizuna, inola ere ez. Egia da astebete lehenago zehazten direla bilkurako gaiak. Gai horiek edozein legebiltzar-talde proposatuak dira, eta legez besteko proposamenak izaten dira normalean. Proposamen hori aurkezten duen taldeak adostasun nahikoa lortu behar du proposamenak aurrera egin dezan. Beraz, aste horretan zehar bilerak eta ideien elkartrukea egiten da legebiltzarkideen artean. Pleno egunean, talde proposatzaileak hamar minutu izaten ditu bere proposamena azaltzeko, eta gero, gainontzeko taldeek beste hamar minutu beraien posizioa adierazteko. Ondoren, berriz, beste bost minutuko txanda bat egiten

ten da erantzun ahal izateko, presidenteari baimena eskatu eta norbere lekutik zein tribunatik. Gauza laburren bat esateko adostasunera iritsi garelako eskerrak eman- ez du merezi tribunara igotzeak.

Batzuetan, pleno eguna baino lehen lortzen da ados jartzea; baina besteetan, ordea, plenoan bertan lortzen dugu adostasuna. Beraz, batzuetan aurretik diskurtsoa prestatu dezakezu edo ez. Dena dela, bi kasuetan benetako eztabaida ematen da.

◆ **Plenoetan eserlekuak hutsik ikusten dira. Askotan izaten dira hutsegiteak?**

Plenoak ostegunero izaten ditugu, eta bi astean behin, ostiraletan, Eusko Jaurlaritzaren kontrolerako bilkura izaten dugu. Horretan, Lehendakariari eta sailburuei galderak egiten dizkiegu. Pleno horietan ere legebiltzarkideok denbora mugatua dugu.

Batzuetan, eserlekuak hutsik egoten dira, egia da. Eta behin baino gehiagotan galdetu didate horren inguruan. Baina pentsatu behar dugu orotara 75 legebiltzarkide garela eta bakoitzak bere gaiak eramaten dituela. Horrexegatik, gure artean adostasuna lortzeko bilera-geletan batzartzen gara. Gainera, pleno egunetan, legebiltzarrean bertan talde guztietako kidea gaudenez, astean zehar eginiko lana aurreratzeko aukera izaten dugu. Horretarako, batzordekideen arteko bilerak egiten ditugu, edo hainbat elkarterekin biltzeko aprobetxatzen dugu. Azken finean, egun horretan gure eguneroko lana aurreratzeko, bilkura normaltasunez egiten den bitartean. Esaterako, garrantzitsuak buruz hitz egiten ari direnean, nik gai horrekiko harremanik bereziki ez badut bestelako lanak egiteko aprobetxatzen dut. Hori dela-eta, une batzuetan eserlekuak hutsik ikusten dira, baina inguru horretan egoten gara, lanean, eta ez tabernan edo alperkerian.

“Ni, momentuz, oso gustura nago. Nire alderdikideek hala nahi izanez gero, jarraitzeko asmoa dut”

◆ **Medio nagusiek batik bat alderdi edo legebiltzarkideen arteko eztabaidak edo liskarrak azaleratzen dituzte gehienetan. Zuen arteko harremana hain tirabiratsua da ala plenoetatik kanpo bestelako giroa dago?**

Normalean, komunikabideetan tira-bira hori igartzen da; baina, Legebiltzarreko eztabaidetan adostasun handiak ere lortzen ditugu gehienetan. Gure harremanak, orokorrean, onak dira talde guztien artean. Batzordeetako kideok maiz elkartzen gara; beraz, harreman estuagoa dugu. Pertsonen izaerak, alderdietatik harago, badu eragina harremanetan eta gerta liteke hobeto konpontzea norbere alderdiarekin kidetasun gutxien duenarekin.

◆ **Hauteskundeak gero eta gertuago daude. Aurkezteko asmorik baduzu?**

Erabaki hori ez dago nire esku. Gure alderdian demokratikoki aukeratzen ditugu ordezkariak. EAJk izen batzuk proposatzen ditu, eta gero, gure Batzokietako Uri

Erakundeetako batzarrean aurkezten dira. Bertan, alderdikideok izen berriak proposatzeko aukera dugu; eta behin bozkatuta, bi buelta eginez, ordezkariak hautatzen dira. Beraz, EAJ-PNVk eta alderdikideek erabaki beharko dute nigan konfiantza izaten jarraitu ala ez. Ni, momentuz, oso gustura nago jardun politikoan. Nire alderdikideek hala nahi izanez gero, jarraitzeko asmoa dut.

◆ **Berriz zinegotzi izanez gero, ba al duzu egitasmorik herrirako?**

Ni aritu naizen sailei dagokienez, euskarari beharrezkoa da erabilera sustatzea. Euskara maila potentea dago herrian, baina asko ez dira erabiltzera animatzen. Beraz, ea Euskaraldiak horretan eraginik baduen. Baina asko landu behar dugu gai hau, orain zein gero. Bestalde, haurrei eta nerabeei dagokienez, zerbitzu potenteak daukagu, baina gazterian badaude hutsuneak. Pauso garrantzitsua eman dugu etxebizitzaren alokairuan laguntzeko, baina aktibazioa sustatzeko zerbait gehiago egin behar da. Kuadrillen Eguna eta Anbolo Eguna partaidetza eta herriko gazteen harremana sustatzeko antolatuta dira. Izan ere, gazteak bestela lokaletan ixten dira. Beraz, hor asko dago egiteko. Baina gai horiek ez dira, noski, Legebiltzarrean lantzen.



Maialen Gurrutxaga Iñigo Iturrate alderdikide eta legebiltzarkidearekin.

Maurik ere itxi du



Mendaroko Mauri harategiak itxi du pertsiana, 44 urteren ostean. Erretiroa hartu dute Mauri Maiora eta Mari Karmen Elizondo senar-emazteek, merezitakoa bistan da, baina harategia ixtearekin batera Garagartzan beste argi bat itzali da. Eta badira batzuk. 1974. urtean Maurik harategia zabaldu zuenetik gaur arte, hainbat denda eta taberna itxi dira auzoan, eta lehen dozena bat ziren lekuan, gaur, bi familiek bakarrik eusten diote negozioei zabalik.

- AINARA ARGOITIA -

Jokin eta Maddi biloben argazkiak han-hemen, eta mendiko lasterketetan horrenbeste lorpen biltzen diharduen alaba Maiteren dozenaka argazki eskuin horman, astekari honek eskainitako azal-orriren bat barne. Trastiendan ari dira Mauri Maiora eta Mari Karmen Elizondo senar-emazteak okela prestatzen, eta irratian, Manu Etxezortu esataria ari da, sukalderik gabeko etorkizuneko etxebizitzaren inguruan berbetan. "Dendako argiak piztu aurretik pizten dut nik goizero Euskadi Irratia. Irratirik gabe honezkero zoratu nintzen hemen, lau horma hauen barruan, tarte luzeetan irratia beste lagunik ez dudala", dio Maurik. Ekainaren 30ean [joan zen ostirala] dute merezitako erretiroa hartzeko eguna, eta orduan, Mendarok beste denda bat galduko du eta Euskadi Irratiak egun osoko entzule fin bat. "Pena ematen dit, badakidalako herriarentzako ez dela ona harategia ixtea, baina ezingo dugu ba bizi osoan jarraitu! Ez da kosta gabe hartutako erabakia izan egia esan, baina, orain,

pozik gaude", aitortu du Maurik denda ixteko hiru egunen faltan. Duela 44 urte zabaldu zuten harategia Maurik eta Mari Karmen Elizondo senar-emazteek, Garagartzan. Beste garai bat zen, eta beste bizi bat zuen auzoak berak ere. Garai hartan Garagartzan negozioa izatea gauza handia zen. Atera kontuak. Gaur denda eta jatetxe bakarra dauden auzoan, baziren sasoi hartan bi okindegi (Roteta eta Salegi), hiru denda (Mateonekoa, Gartzianekoa eta Rosarionekoa), ardanegi bat (Jaurgitarrrena), zapatarri bat (Villarchao), ile-apaindegi bat (Mari Kontxi), arraindegi bat (Alberto), harategi bat (Anton) eta bi taberna (Txikitxonekoa eta Alvarez), eta hantxe, metro gutxiren barruan zeuden baita ere osasun-etxea eta aurten 50 urte beteko lituzkeen nortasun handiko kultur elkarte bat: Guruzpe. Bada hantxe, Mendaroko herrigunean, egin zuen bere lekua Maurik. 23 urte eskas zituen iritsi zenean, eta nahitaezko soldadutza egitetik bueltatu berria zen. 1974. urtea zen.

Lantokia etxe

Gabiriarra da sortzez Mauri Maiora. 15 bat urterekin Debako harategi batean hasi zen ofizioa ikasten, eta aldi batez Tolosako harategi batean lanean jardun ostean etorri zen Mendarora, harategi propioa zabaltzeko asmoarekin. "Orduan harategi bat zabaltzeko aukera izatea handia zen. Estankoa zabaltzearen parekoa ia-ia. Gaur, joan dira orduko kontuak". Errentan hartutako lokalean zabaldu zuen Maurik harategia *Arboletako plazan* [1985az geroztik berea du lokala], gaur dagoen leku berean, eta bera etorri eta bi urte eskasera hasi zen senarraren ondoan lanean Mari Karmen Elizondo. "Ez zen hasiera erraza izan. Ez genuen inor ezagutzen, eta Mendaron, halako itolarri moduko bat sentitu nuen, baina berehala egin ginen herrira. Familia ere berehala izan genuen eta umeek asko errazten dute lekukotzea. Seme zaharrena (Gaxan) jaio eta astebeteren barruan hemen nintzen ni lanean. Hemen hazi dira gure hiru umeak. Hor izaten nituen baztertxo batean lo, gu lanean ari ginen bitartean". Gaxanen argazki bat atera du mostadore atzetik. On Josek 1978ko inauterietan egindakoa da, eta aitaren ondoan ageri da urte érdiko mutila, belauetara arteko mantal txuria jantzita, harakin plantetan.

Lantokia zuten etxe, lana ere erruz egin behar izaten zelako orduan, gaurko aldean. "Okela asko saltzen genuen, ikaragarri, eta lan handia izaten zen hemen goizean goizetik berandura arte. 6:00etarako hemen izaten nintzen ni askotan, eta zapatuetan ere, 16:30ak aldera arte, bai, sarri. Orduan txahal osoak erosten ziren. Gaur, aldiz, txahal oso bat erosten duen harakinak sekulako pagotxa daukan seinale da. Orain, gainera, haragi gorri gutxi jaten da lehengo aldean, eta oilaskoak osoan saltzea ere nekeza da. Dena zatika saltzen dugu. Eta arkumeak... ez genuen bat salduko Gabonaz geroztik", esan du Maurik. Dena aldatu dela *Mauri seme zaharrenarekin, Gaxanekin, 1978ko argazkian.*



Mari Karmen Iker semearekin. 1979ko argazkian.

gehitu du ondotik Mari Karmenek: "Erosteko ohiturak aldatu dira, eta geu ere bai. Orduan ez zegoen gaur beste auto eta gaur beste garraio-zerbitzurik ere, eta herrian erosten zuen jendeak jeneroa. Okela ere gaurko aldean asko jaten zen lehen. Eta gu, jakina, lanerako bizi ginen". Bere-berea zuen harategiko ohiko lanari ez ezik, inguruko baserrietako deiei ere erantzun behar izaten zieten orduan herrietako harakinek. Txerri hiltzeak, oilasko hiltzeak... makina bat lan izaten zuen bazterretan Maurik berak ere, harik eta araudia zorrotzu zuten arte. "Gaur egun, pentsaezina da hori dena. Lehen libre zena gaur debekua da".

"Dena da diferentea orain" eta oharkabean Garagartzaren aro biziago hartara egin du salto berriro Mauri eta Mari Karmen arteko solasaldiak. "Gaur egun esaten dute denda txikiak bizia ematen dietela herriei eta hori baino egia handiagorik ez dago, guk esatea ondo egon ez arren". 70eko eta 80eko hamarkadan dena zen handia Garagartzan. Baita urak ere. Mauri harategiaren 44 urteko ibilbideko pasarte beltzenak ere urak idatzi zituen. "1983ko eta 88ko ufaletan sabairaino izan genuen hemen ura, eta dena, den-dena, galdu genuen. Ordurako, asegururen bat egin genuen, aurrez ere sarri egin zuelako gainezka errekek, eta behin baino gehiagotan izan genuelako ura dendan metro betean gora, baina, aseguru eta guzti ere, berriro hastea modukoa izan zen bi aldi haietan. Sekula ez ditugu ahaztuko orduko irudiak, eta auzotarren arteko elkartasuna", gogoratu du Maurik. Mari Karmenek ere argi du geroztik ezer ez dela berdina izan auzoan. Obra handiak egin zituzten orduan Kilimoi erre-karen ubidea zabaltzeko, baina ikusitakoak ikusita, asko izan ziren auzotik alde egin zutenak. "Jende asko joan zen hemendik orduan, eta ulertzekoa da. Urari begira bizi ginen beti, dena gal-

tzeko arriskupean, eta hori ez da inorentzat samurra”, zehaztu du. 83ko ufaletan, urak maila handia hartu zuen kalean eta esan barik doa kalteak handiak izan zirela. Gurutze Gorrikoek plastikozko txalupetan atera behar izan zituzten etxean irten ezinda gelditu ziren bizilagunak ere, eta historiako gelditu diren irudi asko utzi zituzten orduko ufalek. “44 urtean, urak eman dizkigu buruhauste handienak hemen. Bueno, urak eta Behi eroen gaitz hark. Prentsan egunero argitaratzen zuten albisterei bat eta hark kalte handia egin zigun guri, okela kontsumoa nabarmen apaldu zelako”, oroitu du Mari Karmenek.

Gainerakoan, oroitzapen onak gehiago dira. “Kalean egiten zuen bizimodua jendeak eta umeak kalean hazten ziren. Harategi aurreko plaza hau umez beteta egoten zen beti, eta umea dagoen lekuan, beti da poza. Sekulako giroa sortzen zen, eta zer esanik ez jaietan. Zer zen hura”, ekarri du gogora. Horren harira, egoitza harategitik metro gutxira izan zuen Guruzpe kultur elkarteak egindako lana ere nabarmendu du Maurik. Kultur ekintza ugari antolatu zituen Guruzpek eta bertan eman zituzten mendaroak Mendaro herri izateko lehenengo pausoak ere. “Herri honek asko zor dio Guruzpe elkartearen bueltan lanean ibili zirenei. Gogoan daukat ikastola sortzeko lehenengo bilerak ere hemen egin zirela Mateoneko goi horretan”, gogoratu du Maurik, garai bateko jaien errepassoarekin hasi aurretik.

Jaiak, santanak. Lan handiko egunak izaten zituzten harategian eta ia egun osoz izaten zuten denda zabalik. Egun horietan bisita bereziren bat edo beste ere izan zuten, gainera, sokamutur egun batez zezena dendara sartu zitzaizkien adibidez. Bisita laburra izan zela oroitu du Maurik, sartu-irtena, baina nahikoa barra atzean zeudenak estutzeko. Igarri zion nonbait adardun hark barra osteko mantal txuriko gizonak ofizioa zein zuen. “Zezenari ihesi ibiltzen ginen beti hemen. Kanpotik ere jendetza handia biltzen zen orduan erreka bueltara zezena ikustera, eta pretiletik saltoka ibiltzen ziren gazteak”. Estuasunik izan zen Garagartzan orduan, eta egun beltzik ere bai tartean. “Goiz batean, dendara etorri nintzenerako, hemen topatu nuen auzoko gizon bat lurrean ziplo, zezenak jota. Gogorra izan zen”.

Bezeroenganako esker ona

44 urte dira, bizitza oso bat, eta oroitzapenak trumilka datozkie gure gaurko protagonistei. Bezeroekin izan duten hartue manak izugarri bete dituela diote eta ez dutela hitzik topatzen haiengandik jaso duten guztia eskertzeko. “Mendarok oso ondo



1983ko ufalak Garagartzan. Goian, Mauri bera, harategi atarian.

hartu gaitu beti eta aukera hau baliatu nahiko genuke denei eskerrak emateko. Azkeneko aste honetan jakin dute askok ixtera goazela eta dozenaka dei jaso ditugu egunotan. Itxi behar dugun egunerako enkargu berezirik egin digunik ere bada. Ez da erraza izango hau uztea, harategiak asko eman digulako, baina erabakia hartu dugu eta ez dago atzera bueltarik. Pozik gaude”, esan du Maurik. Duela bi urte hartu zuen erretiro aktiboa berak, baina emazteak erretiroa hartuko duen egun berean hartuko du behin betikoa. “Akabo. Orain, gozatzeraz. Hor ibili gara luzatu eta luzatu erabakia hartu ezinda, eta amorrarazi zaizkigu seme-alabak ere, baina listo. Orain, sasoko gaudela, gozatzeraz, hemen txarrak egun batetik bestera iristen dira eta, eskatu gabe”, dio Mari Karmenek. Eta ez zaie arrazoirik falta. Ezta planik ere. Alabak duela gutxi jakinarazi du denboraldi berriko kirol-egutegia, eta dendako egutegi eta ordutegi lotu-gatik egiterik izan ez dituztenak egiteko gertu daude oraintxe gurasoak. “Asteburuan Fuente De-ko proba jokatu du Maitek eta ezin izan gara joan denda zabaldu beharra guelako. Laster kanpora joatekoa da, baina, eta hara iritsi nahiko genuke”.

Sutegiko hilabeteroko kontzertuekin “harro”, aurrerantzean ere antolatuko dituzte gaztetzeko emanaldiak

Sutegixa gaztetxean hainbat kontzertu antolatu dituzte martxotik ekainera bitartean. Uda aurreko azken emanaldiaren ondoren, “harro” sentitzen dira egindako lanaz.

Martxoan hasi zituzten kontzertuak Narrutsik Elgoibarko talde feministarekin elkarlanean. Herriko artista gazteek eskaini zituzten kontzertuok. Lehenik Amaia Ugartemendia (Tolosa), Xabi Larrañaga eta Pello Errastik, eta gero, Ainhitze Beristainek taula gaineko lehen saioa egin zuen.

Apirilean Albert Cavaliers talde donostiarra aritu zen gaztetxean. “Etorkizun handiko taldea” da Cavaliers eta erakutsi zituzten euren dohaiak Elgoibarren ere.

Debako Talka bertsio talde akustikoa izan zen maiatzean eta kantuan jarduteaz gain, bertaratu zirenak kantu ezagunak abesten jarri zituzten.

Uda aurreko azken txanpa Pelax taldeak egin zuen ekainaren 17an, eta gaztetxetik esan dute oraindik sentitzen dela



Lehen emanaldian Elgoibarko musikariak aritu ziren.

Sutegixan talde haren energia. “Poliki-poliki gure gogoak eta indarrak gora egin dute, eta Sinuose eredutzat hartuz kontzertu egitasmo honi jarraituko diogu”, adierazi dute antolatzaileek. Era berean, kontzertuetan laguntzaile, lankide eta partehartzaile izan direnei eskerrak ere eman dizkiete.

Jadanik hasi dira hurrengo saioa prestatzen, abenduaren 22an, gaztetxearen

urteurrenean, izango dena. “Egun berezi horretarako saioa ilusio handiz prestatu nahi dugu herriarentzat eta historikoki Elgoibarko gaztetxearen parte izan diren guztientzat”. Gainera, Jaien ondoren ere, beste kontzertu batzuk antolatzeko asmoa dute Sutegixan.

Bestalde, herriko gazteei gonbidapena egin diete ostiralero, 20:00etan egingo duten bileran parte hartzeko.

Udako Irakurketa Gida prestatu du Gotzon Garate Udal Liburutegiak

Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegiak haur, gazte eta helduentzako Udako Irakurketa Gida prestatu du. Guztira, euskara eta gaztelaniako 33 liburu gomendatu dituzte adin guztietako zaleentzat. Horien artean daude idazle elgoibartarren bi liburu: Jasone Osororen *Ikasbidaia* eta Uxue Alberdiren *Jenis Joplin*. Udarako horietako libururen bat eskuratu nahi dutenek jakin dezatela uztailean 8:00retatik 14:00etara egongo dela liburutegia zabalik eta abuztuan itxi egingo dutela. Ebookean irakurtzen dutenek www.eliburutegia.euskadi.eus webgunean eskuratu ahal izango dituzte gida horretako irakurgaiak eta beste zenbait. Informazio gehiago behar izanez gero, liburutegia@elgoibar.org e-pstara idatzi edo deitu 943 743 525 zenbakira.

Paella lehiaketarako eta adinekoen bazkarirako izena emateko epea zabalik, Mendaron

Mendaroko Santa Ana jaiak uztailearen 25ean hasiko dira ofizialki. BARRENEKO egungo lantaldeak eta Kilibarren ataleko hasierako taldeak botako dute txupina eta lehertuko da festa, baina dagoeneko zabaldu dituzte jaietako hainbat ekitalditan parte hartzeko izenemateak. Kuadrillen egunean, uztailearen 28an, paella lehiaketa egingo dute ohi legez, eta izena eman nahi dutenek Uztargin, Menditxon edo Aitz Beltz tabernetan eman dezakete, 5 euro ordainduta (uztailearen 15a izango da azken eguna). Egun horretara arteko epea dute, era berean, adinekoen bazkarirako izena eman nahi dutenek ere. Bazkaria uztailearen 29an izango da, 14:30ean, Aizpe elkartearen. Izena emateko Aizpe, Lagun Betikoak eta Roteta dira tokiak. Aurten gutxienez 70 urte betetzen dituztenek edo gutxienez bikoteko batek adin hori bete duenez da bazkaria.

Mendaroko Gararock jaialdia badu kartela



Ander Mujikak diseinatu du kartela.

Mendaroko Gararock musika jaialdia irailaren 22an egingo auzten Mendaron, eta antolatzaileek lotua dute Garagartzan arituko diren taldeen zerrenda: Biznaga, Anari, Jupiter Jon, Last Fair Deal, Dr. Maha's Miracle Tonic, Trakamatraka eta DJ Art-etxe. Ander Mujika musikari elgoibartarrak diseinatutako kartelak iragarriko du jaialdia. Antolatzaileen esanetan, "kartel magiko bat da, gau magiko baterako".

Madrilgo Biznaga taldeak punk-rock doinuak ekarriko ditu. Anari abeslari azkoitiarra eta hark lagun izango dituen musikariak "tar-tean Ander Mujika" estreinakoz etorriko dira Mendarora eta "benetako luxua" izango dela diote antolatzaileek. Irungo Jupiter Jon taldearen musika talde zehatz batean sailkatzea zaila dela esan arren, "altxor bitxi" izendatu dute Gararock-erako. Hard-rocka eta bluesa "maisutasunez" uztartzen dituen Bilboko Last Fair Deal hirukoak ere joko du, eta DJ Art-etxe zarauztarrak 60. hamarkadako musika, garage, psikodelia edota surf doinuak ekarriko ditu Mendarora.

Horiez gain, musikazale gaztetxoentzat ere izango da doinurik. Batetik, Dr. Maha & The Miracle Tonic taldeak swing, western swing eta rhythm'n'bluesa egingo du eta Trakamatraka Jon Urrutiak birziklatutako elementuekin egin daitezkeen musika-tresnak erakutsiko ditu.

Euriak ez ditu zapuztu Idotorbeko jaiak eta auzotarrek "primeran" pasatu dute

Idotorbe auzoko jaiak izan ziren joan zen asteburuan San Pedroren omenez. Ostiralean prozesioan atera zuten santua, eta asteburuan eguraldiak erabat lagundu ez arren, jaiak "primeran" pasatu dituztela esan dute auzotarrek. Barixakuan idi-dema izan zen estreinakoz gaez eta Orioko Olidenek irabazi zuen. Bestelako lehia batean ere aritu ziren Idotorben, mus txapelketan, eta loiolatarrak izan ziren nagusi. Dantzak ere izan zuen lekua, baina eguraldia zela-eta, zapatu gaeko erromeria elizan egin zuten Obaneuke taldearekin. Domekan ere elizan bertan egin zuten dantzan auzoko gaztetxoek. Gainera, denek hartu zituzten indarrak goizaldeko parrilladarekin. Umeek jolasak eta Rusoren zezen txikiak ere izan zituzten ondo pasatzeko. Jaietako zozketako saria, berriz, Joxe Migel Ansolari egokitu zitzaion eta janariz eta edariz betetako gurdia jaso zuen. Bigarren saria, berriz, 3.377 zenbakari dagokio, baina hamabost egunean jaso ezean ordezkarentzako izango da (2.481).



Beste garaipen bat Iñigo Lariz zein Ainhoa Lendinezentzat Nahaste Borrasten

Nahaste Borraste proba herrikoien 34. ekinaldia jokatu zuten aurreko barixakuan Elgoibarko kaleetan. Guztira 36 lagunek hartu zuten parte, tartean emakume bakarrak. Alkoholaren eraginpean zihoan gidari batek harrapatuta hil ziren Villabonako andre-gizonak gogoan izan zituen Kimetz elkarteak probaren hasieran egin zuten minutu bateko isilunearekin. Gero bizikleta probari ekin zioten parte hartzaileek Kalegoen plazatik. Iñigo Lariz izan zen berriro plazara ailegatzen lehena, alde nabarmenarekin. Gorka Gonzalezek amaitu zituen bizikletako lanak bigarren postuan eta Asier Basurto ailegatu zen hirugarren postuan. Zaku bizkarrean hartuta egin beharreko zatian eta saltakako azken proban aurkariekiko



aldea gizendu zuen Larizek eta kale oso bateko aldearekin gurutzatu zuen helmugako marra. Zortzigarrenez irabazi zuen Nahaste Borraste, azken hiru garaipenak jarraian lortuta. Hamazortzi minutu eta 25 segundoan osatu zuen ibilbidea. Jon Larrañaga mendarorra sailkatu zen bigarren postuan (19:12),

atzetik aurrera eginez, seigarren postuan hasi baitzuen zakuaren proba. Gorka Gonzalezek egin zuen hirugarren (19:35). Emakumezkoetan Ainhoa Lendinezek irabazi zuen proba 21 minutu eta 29 egundoko denbora eginda. Hamabi garaipen ditu aurtengoarekin.



Leire Garate Euskotren Ligan arituko da Orioko traineruarekin

Emakumeen arrauneko gorengo mailan lehiatuko da Leire Garate elgoibartarra, Orioko traineruarekin. 2018ko Euskotren Ligarako sailkapen estropadak jokatu zituzten aurreko asteburuan Zierbenako uretan, Petronor Banderan. Hurrengo asteetan lehiaketan parte hartuko duten lau ontzien izenak erabaki ziren estropada horretan. Ori, Hondarribia, Arraun Lagunak eta San Juan dira 2018ko Euskotren Liga eraberrituan lehiatuko diren lau taldeak. Sailkatzea lortu duten lau ontziek hamabi estropadatan hartuko dute parte. Denboraldia ilusio handiarekin eta sasoi betean hasi dute bai Oriok eta bai Garatek. Orioko trainerillak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen joan den maiatzean, Mutrikun, eta ontzia osatu zuten zazpi arraunlarietako bat izan zen Garate. Orain, traineruentzako Euskotren Ligan lehiatzeko gogoz da goela azaldu du Garatek. "Gizonezkoen Ligarekin parekatu nahi izan dute, eta egin dituzten aldaketen ostean emozio handiagoko txapelketa izango dela uste dut", azaldu du. Estropada denak telebistaz emango dituzte.





Ehunmilak ultra trailari ongi-etorria


Euskal Herriko Ultra Txapelketa izango den Ehunmilak mendi lasterketa Elgoibartik pasatuko da uztailaren 13an. Aurten hiru elgoibartar daude izena eman dutenen artean: Pedro Alvarez De Pablo, Iban Fernandez eta Gorka Mir. 168 kilometroko ultratraila bukatzen saiatuko dira hirurak. Elgoibarko Ehunmilak taldeak lasterketari ongi-etorria egingo dio Azkaraten, 22:00etatik 2:00etara. Askoz gehiago izango dira G2Handiak 88 kilometroko proban parte hartuko duten gure ordezkariak. 800 lagun baino gehiagok eman dute izena eta hamabost dira elgoibartarrak, horietako batzuk itxaron zerrendan badaude ere.



Esloveniako Eurofest eskubaloi txapelketan parte hartzen dihardute Sanloko infantilek



Sanloko Hotel Txarriduna infantil mutilen taldea Eurofest eskubaloi jaialdian lehiatzen ari da Esloveniako Koper herrian. Uztailaren 3an hasi zen nazioarteko txapelketa eta domekan bukatuko da. Hotel Txarridunak Frantziako Uodl H.B., Israelgo selekzioa eta Esloveniako bi talderen aurka jokatu du, gutxienez, 26. Eurofest txapelketa entzutetsuan. Guztira, 11 eta 17 urte bitarteko 3.000 jokalarik (200 talde) baino gehiago ari dira lehiatzen. Duela urte batzuk, 2013an, Sanloko bi taldek hartu zuten parte txapelketa honetan, Sanlok nazioartera egin zuen estreinako irteeran.



Javier Ezenarro zenaren omenezko txirrindulari lasterketa Mendaron

XI. Javier Ezenarro Oroitzarrea txirrindulari lasterketa jokatu dute zapatuan, uztailaren 7an, Mendaron. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen du urtero lasterketa hau, eta guztira, 85 bat kilometroko ibilbidea egin behar izaten dute txirrindulariek, bi aldiz Osintxuraino joan eta beste birritan Kalbarioko gaina igoz. 16:00etan hasiko da lasterketa Kilimon etorbideetik.



Sigmako Pilota Txapelketako finalerdiak, zapatuan

Urtebeteko etenaren ostean, Sigmako Pilota Txapelketa antolatu du berriro Eulogio Estarta Elkarteak. Lau bikote aritu dira lehian Lehen Mailan eta beste lau bikote beteteranoetan. Joan den zapatuan, ekainaren 30ean, jokatu zituzten finalerdiak. Beteranoen arteko neurketan Madariagak eta Felixek 22-15 irabazi zieten Kortaberriari eta Esnaolari. Lehen Mailako finalerdian, berriz, Egañak eta Astigarra-gak osatutako bikoteak 22-15 irabazi zieten Rojori eta Vallesi. Bihar, hilak 7, Lehen Mailako bigarren finalerdia jokatu dute Igor eta Iker Txurruka anaiek Porturen eta Agirrebeñaren aurka, 21:00etan hasita, Sigmako frontoian. Beteranoetako bigarren finalerdia ekainaren 22an jokatu zuten eta Telleriak eta Berazak lortu zuten finalerako sailkatzea. Finalak uztailaren 14an jokatu dituzte.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita etxeko langile modura ere.
☎ 612 216 458

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Orduka, astebukaeretan edo gaueetan.
☎ 632 229 972

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentziak eta gidabaimena daukat. ☎ 689 571 882

Emakume euskalduna prest adinekoak eta gaixoak zaintzeko. Arratsaldez.
☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako prest. Paperak legeztatuta. ☎ 688 813 569

Garbiketan zein adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia eta erreferentziakin.
☎ 688 712 075

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egongo nituzke.
☎ 627 230 784

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Esperientzia daukat.
☎ 612 222 362

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita etxeko langile modura ere.
☎ 631 558 243

Adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest. Etxeko langile moduan ere arituko nintzateke.
☎ 631 556 507/620 619 287

Gauze adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Umeak zaindu edo garbiketa lanak ere egongo nituzke.
☎ 616 457 254

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Gauze, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 631 891 709

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. Etxeko langile moduan ere egongo nintzateke.
☎ 631 988 757

Pertsona arduratsua prest adinekoak edo umeak zaintzeko. Etxeko langile moduan ere egongo nintzateke.
☎ 631 624 304/666 197 831

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Gauze, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak edo tabernetan zerbitzari lanak ere egongo nituzke.
☎ 651 479 142

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta etxeko langile moduan ere arituko nintzateke. Esperientzia daukat. ☎ 642 941 067

Eskaintzak

Esperientzia duen zerbitzari euskalduna behar da lanaldi osorako.
☎ 943 741 230

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculuma helbide honetara: elgoibardenda@hotmail.com

Adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko norbait behar dut.
☎ 616 421 970 (Maria)

Tituludun emakumea behar da Deban adineko pertsona zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
☎ 6648 203 775

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 677 259 560

Etxebizitza salgai Elgoibarko Santa Ana kalean. 3 logela, trastelekua, garaiea eta igogailua. Balkoidun etxea. Berokuntza instalazioa eginda.
☎ 688 607 655

Etxebizitza alokagai Conilen udarako.
☎ 699 276 962 (Lola Peces)

OSPAKIZUNAK.....

Uztailaren 28rako Sigmako auzotarrek ospakizuna antolatuta dute. Bazkarira joan nahi dutenek uztailaren 10a baino lehen eman behar dute izena. 47 € sartu behar dituzte Laboral Kutxako ES97 3035 007 21 0071135348 kontu zenbakian.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.
Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Erregeko Administrazioaren Lanakile Erakundea



**ROSA M^a
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire komunitatean debekatu nahi dute aparkatzeko gune bat bi ibilgailuk erabiltzea, nahiz eta mugak ez gainditu. Udal-ordenantzek ez dute espreski debekatzeko, ezta komunitate arauak ere. Horietan aparkatzeko toki kopurua baino ez da zehazten. Jakin nahi nuke legekoa al den leku bakoitzeko bi ibilgailu aparkatzea ala debekatu al daitekeen.

Nire ustez, legea berriro zenetik, irizpideak ez dira aldatu, nahiz eta lege honen harira iritzi bat baino gehiago egon. Jabe bakar batena den aparkaleku batean bi ibilgailu edo gehiago aparkatzeari buruz debekuak ezarrita egon daitezke estatutuetan edo komunitateko titulu osagarrietan.

Horietan soilik garaje hitza aipatu eta ibilgailu kopururik zehaztu ezean, pentsatu behar da, aparkatu daitezkeela toki berean automobil eta moto bat, beti ere maniobretan beste jabeek trabarik egin ezean.

Ezingo litzateke horrelako mugarik ezarri barne-erregimeneko araudi batean. Izan ere, horien funtzioa zera da: bizikidetzaren zehaztasunak eta zerbitzu zein gauza komun erabilera egokia arautzea. Beraz, jabe bakarrarena den gune bati mugak jartzea hain gaitz delikatu izanik, ezin da bide honetatik arautu.

Ondorioa: Jabeen batzordeak erabilera hori debekatzeko gehiengo akordioa lortzeak ez luke baliorik izango. Akordio hori baliagarria litzateke titulu osagarriak edo estatutuak aldatzeko legeak ezarritako gehiengo betez gero.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Izeia**, pasa den igandean 2 urte bete zenituelako. Muxuak. Familiak, bereziki Unaxek eta Oierrek.



Zorionak, **Ibai**! 2 urte beteko dituzulako bihar! Ondo ospatu familiarekin. Gora San Fermin!



Zorionak, **Nahia**! 10 urte dagoeneko! Patxo erraldoi bat eta segi horrela, bihotza!



Zorionak **Laiene**, Haizea, Larraitz, Jabi eta Irantzuren partez. Urte askuan, txapela kaskuan! Askok maite zaitugu, potxola.



Zorionak, **Lara**, ostegunean 4 urte bete zenituelako, eta **Danel**, abuztuaren 7an 6 urte beteko dituzulako. Muxu asko familia osoaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€ Argazki bikoitza: 7€ Hirukoitza: 9€ Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€ Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€ Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



LAN DEIALDIA

LH eta DBHko Akademiak lan egiteko curriculumak jasotzen dira. Interesatuak bidali helbide honetara:

akademiaelgoibar@gmail.com

KENSINGTON INGELES- ESKOLAK
LANGUAGE SCHOOLS

Uztailaren 16tik 31ra
Irailaren 3tik 14ra
Goizez 2 ordu
Eskola intentsiboak (maila guztiak)

Harremanetarako: 626 419 354

RFB 183/12

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

BEHERAPENAK

%10

%20

%40

%30

%50

6 BARIKAKUA

10:30 San Fermin txiki Mendaron. Pre-goia udaletxetik eta ondoren entzierroa.

11:00 San Fermin txiki. Txorizo bana-keta Maalan. 11:30ean peñen igoera eta 12:00etan txupinazoa. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 Sanlo Eskubaloi Kirol Taldearen urteko batzar nagusia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

21:30 Bideo Foruma: *Evelyn*. Gidaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.

22:30 Aire libreko zinea: *El cuaderno de Sara*. Kalegoen plazan.

7 ZAPATUA

16:00 Jabier Ezenarro Oroitzarrea txirindularitza lasterketa Mendaron. Irteera: Herriko Enparantzatik. Antolatzailea: Mendaroko Txirindulari Elkarte.

21:00 Sigmako pilota txapelketa. Finalerdiak Sigmako pilotalekuan

9 ASTELEHENA

18:00-20:00 Emakumeentzako jabe-kuntza tailerra. Hausnarketarako saioa. *Gure beldurrak*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Doan eta irekia. Antolatzailea: Elgoibarko Udaleko Berdintasun Saila. Kultur Etxean.

13 BARIKAKUA

22:00-2:00 Ehunmilak ultratrail lasterketari ongietorria. Azkaraten. Antolatzailea: Elgoibarko Ehunmilak Taldea.

Aire libreko zinea (Kalegoen plazan)



'Coco'

7 Zapatua, 22:30

Migel musikako mito bihurtzea amesten duen mutil gazte bat da, baina musika debekatuta egon da Miguelen familian, belaunaldi luzez. Musikarako doaia duela erakutsi nahian, *Hildakoen Lurralde* bitxi eta koloretan sartuko da Miguel.



'Piratas del Caribe: La venganza de Salazar'

13 Barixakua, 22:30

Bermudako Hirukitik ihes egin berria den Salazar kapitaina eta bere mamu-eskifaia Jack Sparrow segika ibiliko dira. Jackek Salazar menderatzeko Poseidonen tridentea behar du.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

| GUARDIAK | | | | | | | |
|--|---------------------------------|---|----------------------------|---|---------------------------------|---|-----------------------------------|
| Egunez: 09:00-20:00 | | | Iluntzean: 20:00-22:00 | | | Larunbatak: 9:00-14:00 (*) | |
| 6 BARIXAKUA | 7 ZAPATUA | 8 DOMEKA | 9 ASTELEHENA | 10 MARTITZENA | 11 EGUAZTENA | 12 EGUENA | 13 BARIXAKUA |
| Egunez Etxeberria | Egunez Barrenetxea | Egunez Barrenetxea | Egunez Yudego | Egunez *Oruesagasti | Egunez Barrenetxea | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia |
| Iluntzean Etxeberria | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Yudego | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Yudego | Iluntzean Garitaonandia |
| * Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142 | | * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638 | | * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384 | | Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00 La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar) 943 254 410 | |

Ekainean hildakoak

. Manuel Soto Hernandez

84 urte, ekainak 7

. Angel Azpiazu Azpiazu

87 urte, ekainak 13

. Felix Torres Riaño

83 urte, ekainak 18

. Jose Mari Armendia Izagirre

89 urte, ekainak 21

. Julian Santamaria Contreras

72 urte, ekainak 21


. Iñaki Santos Argintxona

70 urte, ekainak 29



Jose Miguel Gabilondo Alberdi

2018ko uztailaren 3an hil zen, 64 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Miren Unzueta Mendicute

2018ko uztailaren 3an hil zen, 95 urte zituela.

**Zure maitasun begirada eta irribarre goxoa
izan dira gure pozgarri.
Beti gure bihotzetan.**



Julian Santamaria Contreras

"Santa"

2018ko ekainaren 21ean hil zen, 72 urte zituela.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak





1957

Edozein sakelako telefonorekin ateratzen dira gaur egun kuadrillako argazkiak. Garai batean, ordea, ez ziren asko ateratzen eta horiek ahalik eta txukunenak izan zitezten ahalik eta argazkilari trebeenengana joaten ziren, gerora lagun arteko oroigarri polit bat izateko. Lagun talde hau dotore prestatu eta Labordeta argazkilariak Kalebarren plazan zeukan estudiora joan zen argazkia ateratzera. Argazkia ekarri digun Ana Mari Lasak ez du ziur gogoan, baina horrelako argazkilari profesionalaren lana ordaintzeko dirua aurreztu beharko zutela uste du. Bakoitzak argazki bana jaso zuen gero eta oraindik garai hartako kontuak gogoratzeko aitzakia izaten da erretratuak ikustea. Garai hartako beren kontuak ez, baina gogora dezagun zein diren argazkiko neskak: **Zutik, ezkerretik hasita:** Maria Jesus Kortaberria, Conchita Riaño, Arantza Arrieta (†), Carmela Flores, Arantza Bikondoa eta Purita Juaristi. **Behean:** Merche Iribarren, Belen Juaristi (†), Ana Mari Lasa, Maria Luisa Galdos eta Maria Luisa Arkarazo.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7-Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



**UXUE ALBERDI
eta AITOR NOVA**
poesia musikatua

**ITZIAR UGARTE,
PERU IPARRAGIRRE,
PAUL BEITIA eta
EDURNE AZKARATE**
gazteak, kultura eta
euskalgintza

**OIER GUILLAN
eta ANDER LIPUS**
antzerkian euskaratik eta euskaraz?

AMORANTE
kontzertua, egunari
amaiera emateko!

GOTZON BARANDIARAN
garena bildu eta zabaltzeko bideak

LOREA AGIRRE
egoeraren diagnostika

10 Euskara urte ala ezkara

GORKA ARRESE
kultur langileen
lan-baldintzak

Elgoibartik Euskal Herrira

HARKAITZ CANO
gogoeta literarioa

PINTXO-BAZKARIA

ELGOIBARREN
Urriaren 6an (larunbata)
Egun osokoa
30 €

**ANE LABAKA
eta NEREA IBARTZABAL**
egunak emandakoa bertsoan

**MALEN AMENABAR
eta MARIÑE ARBEO**
muralgintzan

**MURSEGO
eta DANELE SARRIUGARTE**
ikuskizun literario-musikala

**ODEI BARROSO
eta INES OSINAGA**
musika eta euskal kontzientzia

Informazio gehiago eta izena emateko:
www.elgoibarkoizarra.eus
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
943 741 626

Antolatzaileak:



Leguntzaileak:



DANOBATGROUP



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tiende@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta 7 beheka - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefabide@hotmail.com

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROSZTEGIAK

Aroztegia  Carpintería
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

Ulazia
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

BIENA S.L.
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

f

MAR
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com

f

 **iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · ehe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheka
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

iparelek S.L.
elektrizitatea

Kiliman hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

LEIHOAK

 **LODOSO**
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 233
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

IGELTSEKITZA

A. Garate
Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

E. ARANDIA
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 beheka - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida Gremioen gida